



KOBAZ KOBA TRAIL ospatuko da otsailaren 13an, Zestoan

KOBAZ KOBA TRAILen VI. edizioa aurkeztu dugu Zestoako Udal pleno aretoan egin prentsurrekoan. Aurreko urtean lasterketa ez antolatzeko hartutako erabakiaren ondoren, 2022ko otsailaren 13an, lehen gizakiaren bideetatik, iragana bizitzeko esperientzia paregabea egongo da beste behin Arazi IKT eta Agiro Mendi Klubak antolatuta, Zestoako Udalaren laguntzarekin.

Aurkezpenean parte hartu dute: Mikel Arregi (Zestoako Alkatea), Juanjo Aramburu (Arazi IKT), Mikel Irure (Agiro Mendi Kluba), eta bolondresen ordezkari talde batek. Zestoako Alkateak herriko historiaurreko ondarea nabarmendu nahi izan du, lasterketaren ikur baita, eta aipatu du ere, ospatuko den egoeraren testuinguruak behartuta murrizketei egokitutako lasterketa bat izango dela. Juanjo Aramburuk lasterketaren xehetasunak azaldu ditu Mikel Irureri hitza eman aurretik. Azken honek argitu du ibilbidean hobekuntzak egin direla herrira errazago iristeko helburuarekin eta nabarmendu du ibilbidea ohiko legez markatuta egoteaz gain, kilometroak ere adierazita egongo direla ibilbidean zehar (5 kilometro bakoitzeko, seinale bat). Anoa gunetako laguntzaz gain, Gurutze Gorriarena eta identifikatuta egongo diren ia 100 bat bolondresena ere izango dute lasterkariak.

Aurtengo edizioa desberdina izango da aurrekoetatik, COVIDaren hedapena gutxitzeko hartutako erabakiak direla eta. Artzei (15km) eta Zaldei (25km) ibilbideetarako izenemate eskari izugarria izan dugu aurten eta muga jarri behar izan diegu. Ondorioz, pena handiz, nahi baina korrikalari gehiago geratuko zaizkigu itxaron-zerrendan; datorren urtean geurean nahi zaituztegu! Bestetik, maskararen erabilera arautu dugu eta irteeran, lasterketaren lehen kilometroan egongo den irteera neutralizatuan eta helmuga gurutzatutakoan lasterkariak maskara jantzita eraman beharko dute. Lasterketari berari eman diogu garrantzia, historiaurreko koba, aldapa eta bide-zidorretan barrena disfrutatzen. Egoerak behartuta, sari banaketa ez dugu ekitaldi publiko moduan ospatuko jende pilaketak ekiditearren; eta lasterketaren ondoren entregatuko zaizkie sariak merezitako txalo zaparradarik gabe bada ere. Mendian zein plazan nahi dugu disfrutatu eta otsailaren 13an Zestoan egongo diren pertsona guztiei eskatzen diegu jarrera erdugarria izan dezaten, maskara erabiliz, distantziak mantenduz eta arauak betez.

622 dortsal banatuko dira, hauetatik 110 emakumezkoak izango direlarik, 2020ko edizioan baino 22 gehiago. Urtero goraka doa emakumezkoen partehartzea, bejondeiela! 53 zestoarrek eman dute izena, 30 ibilbide laburrean eta 23 luzean; guztira aurreko edizioan baino 14 gehiago; lehia handia espero dugu beraien artean. Zestoarren artean 11 izango dira emakumezkoak. Parte-hartzaileak orokorrean aurreko urteetan baino gertuagotik datoz, izena eman duten parte hartzaile gehienak Gipuzkoa, Bizkaia,

Nafarroa eta Arabatik baitatoz; nahiz eta Iparraldetik, Errioxatik eta Salamancatik datorrenik ere badagoen.

Zaldei (25km) ibilbidea egin behar dutenen irteera ordua 9:00etan izango da eta Artzei (15km) ibilbidekoa 45 minutu beranduago, 9:45ean. Bi ibilbideen hasiera eta amaiera Zestoako Plazan izango da. Zestoako kiroldegi gunean izango dute lasterkariak hamaitakoa egiteko aukera, eta bertan egongo dira ere ohiko moduan dortsal banaketa-gunea eta arropa-zaindegia.

2022koa ere ibilbide ederra eta berezia izango da, Ertxiña, Endoia eta Santa Engraziko gainek ibilbideari ematen dioten gogortasunarekin. Gainera, historiaurreko ondare eta aztarnategien lurraldean, historiaurreko margo eta harribitxiak jasotzen dituzten koben bideetan barrena egiten da lasterketa: Ekain, Danbolinzulo, Astigarraga, Amalda, Praileaitz, Astuigaña, Erraila, Urtiaga, Ermitia eta Erlaitz, eta gainera Irikaitzeko aztarnategia eta Arluze monolitoa. Hau esanda, lasterketaren antolakuntzatik lurjabe guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu beraien lankidetzagatik.

Kobaz Koba Trail lasterketan parte hartuko duten korrikalari guztiei gogorarazi nahi zaie ibilbidea erakusten duten ikurrak eta epaileen aginduak errespetatzea nahitaezkoa dela, hala nola, lasterketa igarotzen den lurrikiko errespetoa.

Probaren ondoren, parte hartzaile, familia, nahiz lagunek, Zestoa herria eta bere inguruak ezagutzeko aukera izango dute, Ekainberri edo Lili jauregia bisitatuz, herriko kaleak, plazak eta tabernak ezagutuz edo inguruko ibilbide ederretako bat eginez esaterako. Zestoako turismo bulegoan gustu handiz emango diete informazioa gerturazten diren orori.

Eskerrak eman nahi genieke Kobaz Koba Trail 2022 posible egingo duten guztiei:

Antolatzaileak: Arazi ideiak borobiltzen eta Agiro Mendi Kluba.

Babesleak: Ekainberri, Zestoako Udala, Bilbotex, El Diario Vasco, Baserria Kilometro 0, Eusko Label, Basatxerri, Goialde, Artiach, Aneto, Txukun lorazaintza, Talleres Lizarralde, GRI Flanges Iraeta, Ugarte eta Ederto.

Laguntzaileak: Fati, Zestoa Autoeskola, Logure, Kaiku, Kutxabank, Coca-Cola, Goxuri eta Mollergi.

Antolakuntza prest agertzen da prentsari atenditzeko info@kobazkobatrail.com helbidera idatzita edo 943 83 36 41 telefonora deituta.




www.kobazkobatrail.com

OTSAILAK
13
FEBRERO



 **ARTZEI bidea 15 km**

Desnibel metatua: +788 m

 **ZALDEI bidea 25 km**

Desnibel metatua: +1.850 m

www.otsail.eus

Antolatzaileak



Babesleak



Laguntzaileak

